

BERA

HERRI HAITADA

2026



PROBEN ARAUDIA



6 herri

Ainhua, Bera, Etxalar, Urdazubi, Sara eta Zugarramurdi.

12 proba egunean zehar

Soka Tira, Boteluze, Ingude altxatze, Dantza, Bertsoak, Egur pila, Arpana, Mus, Txirrindula, Korrika, Sukaldaritza, Kultur Quizz.

Puntuazioa

12 proba. 1 eta 6 puntu arte irabazten ahal dire.

Sailkapena

Egunaren bukaeran puntu gehien bildu dituen herriak irabazten du.

Guttieneko adina

Bizikleta, lasterka eta herri kirolean 16 urte izanen da guttieneko adina. Bertze probetan ez dago guttieneko adinik

Kokapena

Berako zelai gorria.

Bote luze proba eskolako frontoian egingen da, eta eguraldi txarra eginez gero Eztegarako Frontoian.



TXIRRINDULA

PROBA



TXIRRINDULA

PROBA


10km / 352m-ko desnibela
4 mutiko + 4 neska

- Ibilbidea errepide eta mendiko bideetatik pasatzen da.
- Ezin da bizikleta elektrikorik erabili.
- Taldeak bi minuturo aterako dira.
- Talde osoa elkarrekin abiatuko da.
- Taldeko lehen 7ak iristen direnean geldituko da denbora.
- 7 taldekideek elkarrekin zeharkatu beharko dute helmuga.

Antolakuntzak herri bakoitzari emandako kamiseta jantzi behar da.



TRACK- A



TRAIL STATS

Distance	Elevation gain
10.11 km	339 m
Technical difficulty	Elevation loss
Moderate	339 m
Max elevation	TrailRank ?
338 m	10
Min elevation	Trail type
38 m	Loop

Track-aren esteka



KORRIKA

PROBA



KORRIKA

PROBA

5,2km / 227m-ko desnibela
4 mutiko + 4 neska

- Errelebo lasterketa izanen da, 4 pertsonako talde bat elkarrekin abiatuko da.
- Lehen taldeko 3 korrikalari helmugara iristean, bigarren erreleboko 4 korrikalariak abiatuko dira.
- Bigarren erreleboko 3 korrikalari helmugara iristean, denbora geldituko da.

Antolakuntzak herri bakoitzari emandako kamiseta jantzi behar da.



TRACK- A



264 m

38 m

5.18 km

TRAIL STATS

Distance	Elevation gain
5.18 km	225 m
Technical difficulty	Elevation loss
Easy	225 m
Max elevation	TrailRank ⓘ
264 m	8
Min elevation	Trail type
38 m	Loop

[Track-aren esteka](#)



DANTZA

PROBA



DANTZA

PROBA

Guttienez 2 pertsonako taldea
Ez dago jende maximorik

- 2 dantza aurkeztu beharko dira:
 - Tradizionala
 - Modernoa
- 2 dantzen iraupen totala 10 minutu izanen da gehienez.
- 4 puntu hartuko dira kontutan:
 - Musika: musikariak edo musika grabatuta, musika tradizionala edo modernoagoa... zuzenean bada puntu +
 - Jantziak: estetika, tradizionalak edo modernoagoak...
 - Koreografia: mugimenduak, leku aldatzeak, pausuak...
 - Originaltasuna

*egunean bertan gela bat egonen da aldatzeko.





HERRI KIROLAK

PROBA



HERRI KIROLAK

PROBA

Taldeen osaketa

- Sokatiran sexu bakoitzeko 2 pertsona gutxienez. Guztira 8.
- Arpanan bikote mixtoa.
- Ingude altxatzean bikote mixtoa.
- Egur pilan, pertsona bat enborra puskatzen (hau izango da gero igoko dena) eta 4 pertsonako talde mixtoa (2 mutil eta 2 neska) egurrak jarri, kendu eta pilatzen.
- Ez da derrigorrezkoa proba guztietan parte hartzea.

Antolakuntzak herri bakoitzari emandako kamiseta eta **mahoizko galtzak** jantzi behar dira.



S o k a t i r a

- 600kg-ko pisu maximoa 8 partaideen artean. Pisaketa txapelketa baino bi ordu lehenago egingo da.
- Aldaketa bat egin ahalko da, sartzen den pertsona ezingo da ateratakoa baino astunagoa izan.
- 3 taldeko bi multzo. Elkarren arteko bi tiraldi egingo dira eta tiraldi bakoitzak puntu bateko balioa izango du. Bukaerako sailkapenean berdinketarik baldin badago pisua erabakigarria izango da, pisu gutxiago duen taldeak abantaila izanik.
- Ondoren 5.-6. postua, 3.-4. postua eta finala. Berdinketa baldin badago, hirugarren tiraldi batekin erabakiko da lehia.

A r p a n a

- Metro bateko zirkunferentzia duen bago egurrari 3 epai eman behar zaizkio, epai bakoitza osorik ateraz (kortetik atera gabe).
- Bi arpana arituko dira aldi berean.

*Arpanak, astoak eta egurrak antolakuntzak jarriko ditu.



Ingude Altxatzea

Mutilak 18kg-ko eta neskak 10kg-ko ingudearekin, bakoitzak minutu batez ahalik eta altxaldi gehien egingo dituzte, lurreko xaflatik burutik 30zm-ra dagoen xaflaraino. Eraitza altxaldien batura izango da.

Egur pila

- 3 taldek parte hartuko dute aldi berean. Bukaeran bakoitzaren denbora kontutan hartuko da.
- 4 enbor puskatu eta ateratako 12 egur puskak erreleboka jarri, kendu eta pilatuko dira ezarritako marketan.
- Enborrak puskatu dituen pertsona izango da pilaren gainera igoko dena.

*Aizkorak eta enborrak antolakuntzak emango ditu.





BOTE LUZE

PROBA



BOTE LUZE

PROBA

- Talde bakoitza 5 pilotariz eta ordezkari batez osatuko da.
- Herri haitada egunean denbora nahikorik ez dagoenez, 2 kanporaketa jokatuko dira lehenago 2 multzotan.
- Kanporaketak eta herri haitadako azken fasea ahal izanez gero Alzateko pilotalekuan jokatuko dira, eguraldiak ez badu laguntzen Eztegarako pilotalekuan. (Antolakuntzaren erabakiz)

Kanporaketak

- (A eta B multzoak 2025ko sailkapenean oinarrituta sortu dira, 1-3-5 eta 2-4-6).
- Apirilaren 25an A multzoaren kanporaketa, eta maiatzaren 9an B multzoaren kanporaketa jokatuko dira.

A MULTZOA (Apirilaren 25an)

- Zugarramurdi
- Bera
- Urdazubi

B MULTZOA (Maiatzaren 9an)

- Ainhoa
- Etxalar
- Sara




- Multzo bakoitzean denak denen aurka jokatu eta emakume eta gizonen arteko joko irabazien eta galduen arteko kenketarekin (average) sailkapen bat lortuko da.
- Fase honetan emakumeek jokatuko dute herrien arteko lehen partida.
- Kanporaketetan herri haitadako arau eta iraupen berak erabiliko dira.

Herri Haitada (azken fasea)

- Kanporaketetako multzoburuak (A1 eta B1) finalerdietan izanen dira.
- A multzoko bigarrenak (A2) B multzoko hirugarrenaren (B3) aurka jokatuko du eta alderantziz (B2 -A3). Bi galtzaileek 5 eta 6 garren postua jokatuko dute eta bi irabazleak finalerdira pasako dira multzoburuekin.
- Finalerdietako galtzaileek 3 eta 4 garren postua jokatuko dute eta irabazleak finala.



Hementxe eskema lagungarri:



A r a u a k

- Sakeak loratua izan beharko du.
- Bi taldeetako pilotariek adostuko dute ahal den guzietan zeinentzako den kintzea, xixa non den eta abar, adostasunik izan ezean epailearena izanen da azken hitza.
- Partiduen iraupena 15 minutukoa izanen da, denbora bukatzean kintzea jokoan badago hau bukatu beharko da.
- Emakumeen eta gizonen arteko jokoen galdu irabazian berdinketarik balego bigarren jokatu duenak azken joko bat jokatu du berdinketa deusezteko. (Fase bakoitzean definituta dago gizon edo emakumeak hasiko diren jokatzeko).
- Nahi adina pilotari aurkeztuko du talde bakoitzak baina bortzekin jokatu du, aldaketak (talde bakoitzaren barrenean) libre izanik.
- Ezker pareta airean jo ez gero falta izanen da.

Antolakuntzak herri bakoitzari emandako kamiseta eta **mahoizko galtzak** jantzi behar dira.





SUKALDARITZA

PROBA



SUKALDARITZA

PROBA

- 2 pertsonako taldea.
- Herri bakoitzak bere suak eta beharrezko duena ekarri beharko ditu.
- Ze plater egin behar den bi aste lehenago erranen zaie partaideei.
- Antolakuntzak platera prestatzeko osagai nagusia emanen du, bertze guztia partaideen esku.
- 2 ordu izanen dira platera prestatzeko.

Antolakuntzak herri bakoitzari emandako kamiseta jantzi behar da.





M U S

PROBA



M U S

PROBA

- Bi parte hartzaile herri bakotzetik.
- Txapelketa 2 denboratan iraganen da, multzoka eta ondotik fase finalak.
- Multzoak bukatzerakoan multzoko lehena, bigarrena eta hirugarrena ezagutuko dira.
- Sailkapen partidak egingen dira taldeak lehenetik seigarrenera sailkatzeko.
- Partida irabazteko 2 txiko irabazi behar dira.

Antolakuntzak herri bakoitzari emandako kamiseta jantzi behar da.





BERTSOLARITZA

PROBA



BERTSOLARITZA

PROBA

- Herri bakoitzetik bertsolari bat.
- Hasierako agurra, denek. Ez da puntuagarria.
- Gai orokorra denentzat, eta bertsolari bakoitzak bertso bana kantatu beharko du.
- Ofiziotan, binaka, zortziko ttikian 3na bertso.
- Koplatan, hirunaka, 4na kopla.
- Binaka, puntutan, 5 minutu osatu arte.
- Bukaerako agurra. Ez da puntuagarria.

Antolakuntzak herri bakoitzari emandako kamiseta jantzi behar da.





KULTUR QUIZZ

PROBA



KULTUR QUIZZ

PROBA

- 2 herritar eta alkateak hartuko dute parte.
- Lehenik 3 herrietako partaideek erantzunen dituzte galderak eta ondotik, gainerako hiru herriek.
- Antolakuntzak galdera bat botako du, txirrina zapaltzen duen lehenak erantzungo du. Erantzuna zuzena ez bada, hurrengo taldeak erantzuteko aukera izanen du.
- Bi galdera mota egongo dira:
 - Herri bakoitzari buruzko galderak: Herri bakoitzeko galderetan, herri hortako partaideek ezingo dute parte hartu.
 - Galdera orokorrak: Galdera orokorretan denek parte hartzen ahalko dute.



Puntuaketa:

- Lehenengo txandan asmatuz gero 10p.
- Errebotean asmatuz gero 5p.
- Akatsak -5p.
- Sailkapen orokorrerako 6tik 1era zenbatuko da

*Berdinketa gertatzen bada, bertze galdera bat egingen da.

Antolakuntzak herri bakoitzari emandako kamiseta jantzi behar da.

